



ESTATUTUAK

ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE FUNDAZIOA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua - Izena eta iraunaldia

Estatutu hauen bidez, Ikerbasque Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateak eraturako ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE FUNDAZIOA arautzen da.

ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE FUNDAZIOA irabazi asmorik gabeko erakundea da eta, haren eratzailleen borondatez, Fundazioaren ondarea Estatutu hauetako 3. Artikuluan deskribatzen diren interes orokorreko helburuak lortzeari lotu zaio modu iraunkorrean.

Fundazioa izaera iraunkorraz eratzen da, eta eratze-eskritura egilesten den egunean hasiko ditu jarduerak, eta egun horretatik aurrera, fundazioa erregistratzeko egintza guztiak egingo ditu, baita ondarea zaintzeko nahitaezkoak izango direnak eta Fundazioari kalterik egin gabe atzeratu ezin direnak ere, eta egintza horiek guztiak Fundazioak automatikoki bere gain hartzen dituela ulertuko da, hori zinez erregistratzen denean, une horretan nortasun juridikoa eskuratuko baitu.

2. Artikulua - Araubide juridikoa, nortasun eta gaitasun juridikoak

Fundazioak berezko nortasun juridikoa eta independentea dauka, Fundazioa eratze-eskritura Fundazioen Erregistroan erregistratzen den unetik eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun juridikoa izango ditu. Izango dituen muga bakarrak hauek izango dira: erakunde sortzaileek Fundazioa sortzeko egintzan haien borondatea adierazteko zehazten dituztenak. Estatutu hauetan zehazten direnak eta, betiere, Fundazio honi aplikagarri zaizkion lege-xedapenek, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak eta hori garatzen duten erregelamendu bidezko xedapenek zehazten dituztenak.

Horrenbestez, eta Babesletzari (gorri) beharreko jakinarazpenak edo baimenak gorabehera, Fundazioak bere xedea betetzeko egintza eta jarduera guztiak egin ahal izango ditu eta jarduteko gaitasun osoa izango du, Kode Zibilaren 38. Artikuluan xedatutakoaren arabera. Fundazioaren egintzak zerrendatuko dira jarraian.

1. Ekonomi jarduerak, edonolakoak, garatzea, xedeak betetzeko, edo horretarako baliabideak biltzea.
2. Edonolako ondasunak eta eskubideak bereganatu eta besterentzea, edozein titulu dela bide, eta edonolako egintza, negozio eta kontratu egitea.
3. Edonolako egintza gauzatzea, Estatutuen eta legeen arabera.

3 Artikulua. Fundazioaren xedeak

ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE FUNDAZIOAREN xedea da nazioarte-mailan, neurozientzian gainera bikaintasunezko ikerketa orientatu eta estrategikorako zentroa eratzea. Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan eta arlo horretako estatuko eta nazioarteko ikerketa zentro nagusienekin elkarlanean, sozietatearen interesekin bat etorriz, haren garapenean eta gizarte ongizatean lagunduz eta nazioarteko aurrerapen zientifikoari bide emanez

Hortaz, Fundazioaren helburuen artean, honako jarduerak egingo ditu

- 1 Lehen mailako ikerketa-zentroa garatzea, oinarritzko ikerketa, graduondoko prestakuntzako ikerketa eta neurozientzietan ezagutza transferitzeko ikerketarako.
- 2 Aukera-berdintasuna sustatzea
- 3 Neurozientzien gainera funtsezko ikerketa orientatua eta estrategikoa sustatu eta garatzea, Fundazioaren indarreko Ikerketa Programan zehaztutako denaren arabera. Hain zuzen ere, glia/neurona arteko elkarrekintzaren arloan eta zahartze-prozesuan zehar horrek dituen asalduretan ikertzea sustatuko du Fundazioak
- 4 Ezagutza zientifikoa eta teknikoa ekoiztu, sustatu eta zabal dadila bultzatzea. Fundazioak aurreko arloekin zerikusia duten prozesu patologikoarekin (hala nola, Alzheimer-en gaixotasuna, esklerosi anizkoitza, garuneko iskemia eta neuronen beste endekatze-prozesu batzuk, esaterako nerbio-sistemaren endekapenezko prozesuak, esaterako, Parkinson-en gaixotasuna eta alboko esklerosi amiotrofikoa) loturiko ikerketan arituko da buru-belarri batik bat.
- 5 Euskal Herriko Unibertsitatea neurozientzien arloko prestakuntzan, ikerketan, transferentzian eta berrikuntzan nazioarteko garrantzia izango duen erakargune bezala sendotzea ahalbidetuko duten ikerketa eta graduondoko prestakuntzako jarduerak sustatzea
- 6 EAEk eta Euskal Herriko Unibertsitateak funts lehiakorak eta talentu ikertzaileko funtsak erakartzeko duten gaitasuna hobetzea, glia/neurona arteko elkarrekintzaren arloan eta horren aplikazio terapeutikoetan ikerketan lanak sustatzeko
- 7 Neurozientzien arloan EAEko eta nazio-esparruko nahiz nazioarteko esparruko unibertsitate, ikerketa-zentro, teknologia zentro eta enpresekiko lankidetzaz zientifikoa sustatzea
- 8 Elkaraldi zientifikoak antolatzea, nazio-esparruan nahiz nazioartekoan, neurozientzien gainera ikerketa- eta prestakuntza-jarduerari buruz
- 9 Fundazioaren helburuak lortzeko jarduerak finantzatzearen, baliabide berekiak kontratuak -enpresekin-, diru-laguntzak bekak, laguntzak eta dohaintzak -erakunde publikoek nahiz pertsona fisikoek eta juridiko pribatuak emandakoak- eskuratzea.
- 10 Beste edozein jardura, Fundazioaren helburu nagusia eta xedeak lortzen laguntzeko.

Aurreko atalen edukia ez da murriztailea eta helburua lortu eta jardura garatzearekin loturiko xede oro baliadunztat jo behar da



Edozelan ere Fundazioa eratu zuten erakundeen nahia da, (i) Euskal Herriko Unibertsitateak Fundazioa eratzeke egindako ekarpen berezia dela eta (ii) Euskal Herriko Unibertsitateak Fundazioaren xedeak lortzeko etengabeko lanikidetzaz izateko bere gain hartu duen geroko konpromisoa dela eta, ikerketan sortutako ezagutza zabaltzen denean (argitalpen zientifikoaren bidez, patenteen bidez, prototipoen bidez edo ballagarritasun-modeloen bidez, besteak beste), Euskal Herriko Unibertsitatea eta horrek Fundazioaren xedeak lortzeko egin duen ekarpena alpatzea beti.

Hortaz, Fundazioa eratu zuten erakundeen nahia da, Euskal Herriko Unibertsitatearen gaineko aipamen bereziak Fundazioarekiko hitzarmenen bidez arautzea.

4 Artikulua.- Helbidea

Fundazioaren helbide soziala hemen egongo da: Leioako (Bizkaia) EHUKo Parke Zientifikoaren egoitza den eraikina.

Fundazioaren Patronatuak haren helbidea aldatzeko erabakia hartu ahal izango du, eta aldaketa hori Fundazioaren Erregistroan erregistratu beharko da. Orobat, Patronatuari ahalmena ematen zaio Fundazioaren helburuak betetzeak sortzen dituen beharren arabera finka daitezkeen establezimendu, ordezkaritza edo bulegoen egoitzak zehatz ditzan.

5 Artikulua.- Lurralde-eremua

Fundazioak batez ere Euskal Herrian garatuko ditu bere eginkizunak. Fundazioaren helburuen izaerak eremu zabalagoa behar duenean jarduerak lurralde horretatik kanpo garatzeari utzi gabe, Gobernu- eta kudeaketa-organoen egoitza Euskal Herrian egongo da.

6 Artikulua.- Onuradunak

Fundazioaren baliabideak bere helburuak betetzeko erabiliko ditu Patronatuak. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29. Artikuluan xedatutakoa betetzea aldera.

Fundazioaren prestazioen onuradunak izango dira, Patronatuaren aburuz komunitate zientifikoaren partaide aktibo diren pertsona fisikoak edo juridikoak.

Onuradun jakinak izendatzeko, pertsona juridikoak badira, jarduera, kalifikazioa, ikerketarako bikaintasun-maila eta entzutea direla eta Fundazioaren laguntza materiala eta ekonomikoa eta ezagutzak hartzea merezi duten erakunde eta entitateak aintzat hartuko ditu Patronatuak.

Pertsona fisikoak badira, Fundazioak ikertzaileen artean izendatuko ditu onuradunak, deialdi baten bidez eta laguntzak emateko arauak eta prozedura ezarri ondoren. Laguntzak emateko irizpideak, eskabideen ikerketarako bikaintasun-maila eta gaitasuna izango dira.

Fundazioak, interes orokorreko xedei dagokienez, objektibotasun eta inpartzialtasun irizpideen arabera jotzeko du onuradunak hautatzerakoan, inolako bereizkeriarik egin gabe.

7. Artikulua. Jokatu eta aritzeko printzipioak

Fundazioak printzipio hauek izango ditu gidari bere jardueran

1. Publikotasuna eta gardentasuna. Fundazioaren helburu eta jarduerari buruzko informazio nahikoa emango du herritarrek, oro har, eta balizko onuradunek haien berriz izan dezaten
2. Inpartzialtasuna eta bereizkeriarik eza onuradunak zehazterakoan baita Fundazioaren jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere
3. Jokatzeko ildoak sustatzea, eta eginkizun horretan, ereduzko kodeak eta jokatzeko jardunbide egokiak sortzea
4. Patronatuko kideen zerbitzu-izaera sustatzea eta Fundazioaren interesak interes propioen edo partikularren gainean lehenestea
5. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin zintzoki eta etengabe elkarlanean aritzea
6. Fundazioaren ondarea eta errentak benetan Fundazioaren helburuetarako erabil daitezzen defendatu eta babestea Fundazioaren Estatutuetan eta indarrean dagoen arautegian xedatutakoaren arabera
7. Genero berdintasuna





II. TITULUA

I KAPITULUA FUNDAZIOAREN ORGANOAK

8. Artikulua - Fundazioaren organoak

- 1 Patronatua eta Batzorde Betearazlea dira besteak beste, Fundazioaren organoak
- 2 Patronatua da Fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza- organo gorena
- 3 Aurrekoaren kalterik gabe, Patronatuak Eskuordeko Batzorde bat edo batzuk izendatu ahal izango ditu.

9. Artikulua - Patronatua

Patronatua da Fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza- organo gorena. Patronatuari dagokio Fundazioaren helburuak betetzen direla zaintzea eta Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak arduraz administratzen direla, baita horien errendimendu eta erabilgarritasunari eustea ere.

10. Artikulua - Osaera eta agintaldia

Patronatua gutxienez lau (4) kidek eta gehienez hamar (10) kidek osatuko dute

Patronatuko kideak pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke. Pertsona fisikoak badira, Patronatuko kide izateko, jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute eta ezin izango dira kargu publikorako desgaituta egon. Pertsona juridikoak badira, pertsona fisiko batek ordeztuko dute Patronatuan.

Patronatuko kide kargua, kargu publiko edo pribaturen bat duen pertsona bati esleitzen bazaio, pertsona horrek beste pertsona bat izendatu ahal izango du, kargu hori bere izenean bete dezan.

Fundazioaren Patronatuko kideak, Fundatzaile Izendatuak, Izendatuak edo Hautapenezkoak izan ahal izango dira.

Patronatuko kide Fundatzaile Izendatuak Erakunde Fundatzaileen izendapenaren arabera karguak izango dira. Horra hor:

- Bi (2) kide, pertsona fisikoak edo juridikoak, Ikerbasque Fundazioak edo horren ordezkari den erakundeak izendatuko dituenak.
- Bi (2) kide, pertsona fisikoak edo juridikoak, Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak edo Unibertsitatearen ordezkari den erakundeak izendatuko dituenak.

Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kideak mugagabeki arituko dira beren karguetan, eta izendatu dituenak edonoiz kendu ahal izango ditu kargutik. Nolanahi ere, kargutik kentzeko, haien ordezkariak izendatu beharko dira beti.

Patronatuko kide Izendatuak Izendatzaileen arabera izendatuko dira:

- Kide bat (1), pertsona fisikoak edo juridikoak, B+I+O Eusko Fundazioak (BIOEF) edo horren ordezkari den erakundeak izendatuko duena.

Patronatuko kide Izendatuak mugagabeki arituko dira beren karguetan, eta izendatu dituenak edonoiz kendu ahal izango ditu kargutik. Nolanahi ere, kargutik kentzeko, haren ordezkaria izendatu beharko da beti.

Hautapenezko Patronatuko kideak

- Lau (4) kide gehienez pertsona fisikoak edo juridikoak Fundazioaren arlo zientifikoko ikerketa-jarduerekin edo horren inguru instituzional edo sektorialarekin lotuta daudenak horiek hautatzerakoan indarrean dauden Patronatuko kide guztiek izendatuko dituztenak

Hautapenezko Patronatuko kideak lau (4) urtez arituko dira karguan eta behin edo gehiagotan berrautatu ahal izango dira.

11. Artikulua - Patronatuko kideak izendatu eta kargutik kentzea eta kargu hutsak betetzea

Lehenengo Patronatua erakunde Fundatzaileek izendatuko dute eratze-eskrituran

10. Artikuluan erakunde Fundatzaileek egokitutako eskubidearen kalterik gabe, Hautapenezko Patronatuko kideak, kide-kopurua gehitu nahiz kideak ordezteko, Patronatuak berak izendatuko ditu, bertaratuen -bertan daudenak nahiz ordezkariak- gehiengoaren akordioz, eta, betiere, Patronatuko kide Fundatzaile izendatutako gehiengoaren aldeko botoarekin.

Patronatuko kide izendatutako pertsonak espresuki onartu beharko du kargua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen buruzko Legearen 16. Artikuluan xedatutako formularen baten arabera.

Patronatuko kide izateari uzteko kausa izango da, legeak ezarritakoak ez ezik, Patronatuak berak kargutik uzteko hartutako erabakia ere, bertaratuen -bertan daudenak nahiz ordezkariak- gehiengoaren akordioz, eta, betiere, Patronatuko kide Fundatzaile izendatutako gehiengoaren aldeko botoarekin.

Heriotza, ezintasun, desgaitasun, heriotza-deklarazio, baztertzeko edo bateraezintasun, uko egite, kargutik kentze edo gobernu-organismo bateko kide bat ordeztu edo kargutik kentzea dakarren beste edozein kausa direla medio hutsik geratzen diren karguak, izendatze- edo hautatze-prozedura beraren arabera bete ahal izango dira. Estatutu hauen 10. Artikuluan xedatutakoaren arabera, agintaldiaren gainerako denboraldirako, agintaldi mugatu baterako izendatu badira.

Akordioak baliodunak izan daitezten, Estatutu hauen 10. Artikuluan xedatutako gutxienezko kide-kopurua iraunarazi beharko du organismo horretan Patronatuak.

Patronatuko kideak etetea agintaritza judizialak erabaki ahal izango du, baldin eta horren kontra erantzukizun-akzioa hasten bada.

Izendapena, onarpena, etetea, ordezpena, kargu uztea eta uko egitea Fundazioen Erregistroan erregistratuko dira.

12. Artikulua - Doakotasuna

Patronatuko kideek doan jardungo dute karguan. Nolanahi ere, beren eginkizunek eragiten dizkieten gastuak itzuli ahal izango zaizkie, baldin eta behar bezala justifikatzen badituzte.



13. Artikulua - Fundazioko presidentea

Patronatuko presidenteari dagokio Fundazioaren ordezkaritza gorena, baita fundazioei buruzko arautegiak onartzen dizkion eginkizunak burutzea ere. Patronatura deitzea dagokio, bere ekimenez edo, gutxienez, kideen herenak eskatuta, baita eztabaidak zuzentzea eta akordioak burutzea ere.

Patronatuko presidenteari dagokio gobernu-organoren ordezkaritza gorena, eta organo horretako kide gisa dagozkion ahalmenak eta Estatutu hauek ematen dizkionak ez ezik, hauek ere dagozkie Fundazioaren ordezkari izatea Patronatuaren eta Fundazioaren beste organo batzuen erabakien ondoriozko egintza eta kontratu guztietan, bestetik, Fundazioa ordezkatzeko sortzen diren auzietan, espedienteetan, bai eta administrazioaren eta gobernuaren aurrean zein epaiketetan edo epalketak kanpo gertatzen diren eztabaidagai guztietan, eta, horretarako auzitan jarduteko Prokuradore edo Abokatuen alde ahalorde orokorrak emateko ahalmena du. Halaber, Presidenteak Urteko Kontuak egingo ditu.

Ikerbasque Fundazioak izendatu dituen Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kide bien artean izendatuko du Presidenteak Patronatuak, bertaratuen bertan daudenen nahiz ordezkariak- gehiengoaren akordioz, eta, betiere, Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kideen gehiengoaren aldeko botoarekin.

14. Artikulua - Presidenteordea

Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak izendatu dituen Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kide bien artean izendatuko du Presidenteordea Patronatuak, bertaratuen bertan daudenen nahiz ordezkariak- gehiengoaren akordioz, eta, betiere, izendatutako Patronatuko kideen gehiengoaren aldeko botoarekin.

Presidenteordeak Presidentearen ordezkaria izango du, baldin eta hura ez badago edo gaixorik badago, eta egoera hori egiaztatzeko, nahikoa izango da haien adierazpena soilik. Presidenteak eta Presidenteordeak ez badaude, Patronatuko kide zaharrenak jardungo du haien ordezkaria.

15. Artikulua.- Idazkaria

Patronatuak, Patronatuko kideen artean edo ez, Idazkari bat izendatu ahal izango du. Idazkariak dagokio Fundazioaren agiriak babestea, Patronatuaren bileren aktak idaztea, bileren ziurtagiriak egitea, Presidenteak edo horren ordezkariak ari denak onartat emanda, eta behar beste txosten egitea, eta Estatutu hauetan aurreikusitako edo espresuki bere esku uzten diren eginkizunak.

Idazkaria ez badago, Patronatuko kide gazteenak jardungo du haren ordezkaria.

16. Artikulua - Fundazioaren zerbitzura dauden langileak

Patronatuak, Presidenteak proposatuta, Fundazioaren ikerketa eremuan munduan entzutetsuak diren pertsonen artean Zuzendari Zientifikoa izendatu ahal izango du.

Zuzendari Zientifikoa dagozkio Fundazioaren helburuak bultzatu, sustatu eta garatzeko egingo diren eginkizun guztiak. Zuzendari Zientifikoa berariaz dagozkion egintzak adieraziko dira jarraian.

1. Fundazioaren jardueren berriazko helburuak zehaztea, urteko jardueren programa eta Patronatuak onartzen dituen helburu orokorrak betetze aldera.
2. Fundazioaren urteko jardueren programa egitea. Ondoren Patronatuak onartu beharko du.
3. Fundazioaren ikerketa-jarduerak antolatzea. Patronatuaren ildoan arabera.

- 4 Fundazioaren ikerketa-jardueren eta programen garapenaren berri ematea Patronatuari, eta Patronatuak bere kargu edo bere esku uzten dituen eginkizunak gauzatzea. Eginkizun horiek ez dira, inolaz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 18. Artikuluan jasotakoak izango.
- 5 Fundazioaren zientzialariak kontratatzeko asmoz hautatzeko prozedurak zuzentzea eta Patronatuari beste erakunde batzuetako zientzialariak Erakundera atxikitzea onar dezan proposatzea.
- 6 Fundazioaren zientzialariak presta daitezten sustatzea.
- 7 Patronatuak bere kargu edo bere esku espresuki utziko dituen beste eginkizun batzuk, Estatutu hauen arabera. Eginkizun horiek ez dira, inolaz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 18. Artikuluan jasotakoak izango.

Fundazioaren zerbitzura egongo diren gainerako langileak Lan Zuzenbidepean kontratatuko dira, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera.

Fundazioaren langile guztiak Zuzendari Zientifikoaren mendekotasun funtzionalpean egongo dira.

Halaber, Patronatuak, Zuzendari Zientifikoak proposatuta, Zuzendariorde Zientifikoa izendatu ahal izango du, ikertzaile entzutetsuen artean, eginkizun hauek bete ditzan:

- 1 Fundazioaren urteko programa egiten parte hartzea. Ondoren, Zuzendari Zientifikoak eta Patronatuak onartu beharko dute.
- 2 Fundazioaren ikerketa-jarduerak antolatzea, Zuzendari Zientifikoaren ildoan arabera.
- 3 Fundazioaren zientzialariak kontratatzeko asmoz hautatzeko prozeduretan parte hartzea.
- 4 Fundazioaren zientzialariak presta daitezten sustatzea.
- 5 Edonolako ekitaldi edo bileretan –publikoak zein pribatuak– Zuzendari Zientifikoaren ordezkari izatea, baldin eta horretarako eskuordetzen bada.

Patronatuak gobernu-organoko kide baten nahiz hirugarrenen esku utzi ahal izango ditu Kudeatzailetzan aritzea edo kudeaketaren Koordinazioa eta jarduerak egitea. Fundazioaren izenean egin ditzan eta eginkizun horien truke ordainsari egokia emango dio. Kargu hori (Zuzendari Kudeatzailea) izango duen pertsona izendatu edo kargutik kentzeko erabakia Fundazioen Babesletzari jakinarazi beharko zaio.

Halaber, eskuordetuko zaizkion ahalmenak Fundazioen Erregistroan erregistratuko dira.

Zuzendari Zientifikoak, Zuzendariorde Zientifikoak eta Kudeatzaileak ezin izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 18. Artikuluan jasotako akordioak hartu (ahalmenak eskuordetu eta ahalordeak emateko murrizketak).

17. Artikulua Patronatuaren eskumenak

Fundazioaren gobernuari dagokion guztian du eskumena Patronatuak, eta, hain zuzen ere, eginkizun hauetan:

- 1 Fundazioaren helburuak hoberen betetzeko, haren joera edo orientabidea finkatzea.
- 2 Ekonomia- eta finantza baliabide guztiak –jatorria edozein dela ere– administratzea.
- 3 Urteko Kontuak onestea.
- 4 Urteko Kudeaketa Plana onestea.



- 5 Barne-araudiko arau egokiak onestea.
- 6 Horri dagozkion Patronatuko kideak izendatzea.
- 7 Eskuordeko Batzordeak eta Batzorde Betearazleak sortzea, horietako kideak izendatzea eta horien ahalmenak zehaztea eta ahalorde orokorrak edo bereziak ematea, hurrengo artikuluan xedatuko denaren arabera.
- 8 Zuzendaritza-karguak, kargu betearazleak eta kargu aholkulariak izendatzea, eta gainerako teknikariak, administrariak, lan-arloko langileak eta mendekoen kidegoa kontratatzea.
- 9 Beste erakunde batzuetako zientzialariak Fundaziora atxiki daitezen onestea.
- 10 Fundazioaren helburuak hoberen betetze aldera, edonolako egintza eta kontratuak (zibilak, merkataritza-arlokoak, lan-arlokoak, administrazio-arlokoak edo beste mota batzuetakoak) formalizatu eta onestea.
- 11 Proposamenak erakunde eskudunei aurkeztea, gai horietan mailaz goragoko erakunde baten akordioa behar bada.
- 12 Enpresek, entitateek, erakundeek edo partikularrek lankidetzak teknikoko eta langile gaituen prestakuntzako programetan parte har dezaten sustatzea, funtsen eta lankidetzak hitzarmenen bidez.
- 13 Jaraunspenak, legatuak edo dohañtzak onartu edo arbuizatzea, eta erabakia Babesletzari jakinaraztea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak xedatutakoaren arabera.
- 14 Fundazioaren helburuak hoberen betetzeko beharrezkoa edo komenigarria bada, Estatutuak aldatzea eta Fundazioa bat egin, zatitu, eraldatu, azkendu eta likidatzea erabakitzea.

18. Artikulua Ahalmenak eskuordetzea, ahalordeak ematea eta Eskuordeko Batzordeak eta Batzorde Betearazleak

Patronatuak bertako kide baten edo gehiagoren esku utzi ahal izango ditu bere ahalmenak. Eskuordetzea patronatuko kide baten baino gehiagoren alde egiten bada, Eskuordeko Batzordeak eta Batzorde Betearazleak eratuko ditu. Honako gai hauer buruzko erabakiak, ordeak, ezin izango dira inoren esku utzi:

- 1 Urteko Kontuak onestea.
- 2 Urteko Kudeaketa Plana onestea.
- 3 Estatutuak aldatzea.
- 4 Fundazioa bat egin, zatitu, eraldatu, azkendu eta likidatzea.
- 5 Beste pertsona juridiko bat eratzeako egintzak, egintza horiek helburuetara zuzenean lotuta ez badaude behintzat.
- 6 Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak eskuratzeko edo saltzeko egintzak, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiago bada.
- 7 Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzen duten ondasun edo eskubideak xedatzeko edozein egintza.
- 8 Zuzkidura handitzea edo txikitzea.
- 9 Aktibo eta pasibo guztien edo batzuen bat-egite, bereizketa edo lagapen orokorra.
- 10 Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk azkentzeko egintzak.
- 11 Patronatuko kideen autokontratazioa, salbu eta jarduketa hori errepikatua bada eta Babesletzak aurretik baimendu badu kasu berdinetarako.
- 12 Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

Halaber, Patronatuak ahalorde orokorrak eta bereziak eman eta errebokatzeak aukera izango du, ahalmen mankomunatu edo solidarioez, lehenago adierazi diren mugekin.

Eskuordetzeak eta ahalorde orokorrak emateak eta errebokatzeak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan erregistratu beharko dira.

19. Artikulua - Patronatuaren betebeharrak

Fundazioaren Patronatuko kideek betebeharrak izango dituzte

- 1 Fundazioaren helburuak zorrotz betetzea eta betearaztea Legean eta Fundazioaren Estatutuaren xedatutakoaren arabera
- 2 Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea, eta haien produktibitatea osorik iraunaraztea, kudeatzaile on batek izan behar dituen irizpide ekonomiko eta finantzarioen arabera
- 3 Fundazioak berak zehaztu duen Gobernamendu Onaren Kodea onetsi eta ontzat hartzea.

Patronatua osatzen duten pertsonak ordezkaritza leial batek berez behar duen arduraz beteko dute kargua

20. Artikulua - Patronatuko kideen erantzukizuna eta autokontratatzeko debekua

- 1 Patronatuko kideek Fundazioaren aurrean solidarioki erantzungo diete Legearen edo Estatutuaren kontrako egintzen ondorioz edo kargua behar bezalako arduraz ez betetzeagatik eragiten dituzten kalte eta galerei

Erantzukizunetik aske geratuko dira erabakiaren kontra bozkatu dutenak, erabakia hartzen eta betearazten parte hartu ez, eta gainera frogatzen dutenak ez zutela erabakiaren berririk, bai eta, erabakiaren berri izan arren, frogatzen dutenak komeni zen oro egin zutela kaltea ekiditeko edo, gutxienez, esanbidez aurka agertu zirela

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan erregistratu egin beharko dira Patronatua osatzen duten kideen erantzukizuna exijitzeko jurisdikzio arruntean aurkezten den akzioa eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpen judiziala, errekursorik aurkezten ez bazaio

- 2 Patronatuko kideek edo haien ordezkariek ezin izango dute Fundazioarekin kontraturik egin, ez beren izenean ez hirugarren baten izenean. Babesletzak horretarako baimena ematen ez badu behintzat

Fundazioaren helburuak hoberean lortzeko egingo dira kontratu horiek Merkaturako baldintzen arabera, egingo dira Fundazioan kontratatzeaz arduratzen den pertsona edo organoak aurretik erabaki arrazoitua emanda



II. KAPITULUA. PATRONATUAREN JARDUERAKO ARAUBIDEA

21. Artikulua. Barne-jarduera

Patronatuak gutxienez bi bilerara egingo ditu urtean. Bilera bat, urteko lehenengo sei hilabeteen barruan, Urteko Kontuak onesteko, eta bestea, urteko laugarren hiruhilekoaren barruan, hurrengo ekitaldiko Kudeaketa Plana onesteko.

Patronatua ezohiko bileran elkartu ahal izango da, baldin eta kideen herenak eskatzen badu edo Presidenteak hala erabakitzen badu.

22. Artikulua. Deialdia

Presidenteari dagokio Patronatura deitzea; horretarako, Patronatuko kide guztiak zuzenean jakinaraziko die, bilerara eguna baino hamar (10) egutegi-egun lehenago. Aztergaia premiazkoa bada, epea hiru (3) egunekoa izango da.

Deialdia jakinaraztean, bileraren tokia, lokala, eguna eta ordua adieraziko dira, baita Presidenteak erabakitako gai-zerrendaren arabera aztertuko diren gaiak ere.

Patronatuko kideen herenak eskatutako ezohiko bilerara deitzen bada, gai-zerrendak kideek proposatutako gaiak barne hartuko ditu nahitaez.

23. Artikulua. Patronatua eratzea eta erabakiak hartzea

Patronatua balio osoz eratzeko, bilerara Patronatuko kideen erdia gehi bat bertaratu behar dira, zuzenean edo ordezkari bidez.

Patronatua bideokonferentzia bidez edo komunikaziorako beste baliabide batzuen bitartez bildu ahal izango da, baldin eta bermatzen bada bileran zeinek parte hartzen duten identifikatzea, komunikazioa jarraitua izango dela, eztabaidetan esku hartu ahal izango dutela eta botoa eman ahal izango dutela. Edonola ere, bilerara presidentea dagoen lekuan egin dela ulertzen da.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan hartu gabe, Patronatura deitu dela eta hori balio osoz eratu dela ulertuko da horretako kide guztiak bertan daudenean eta bilerara egitea aho batez onartzen dutenean.

Patronatuak, salbuespen gisa, bilerarik egin gabe ere hartu ahal izango ditu erabakiak, baldin eta informazio- eta boto-eskubideak bermatuta badaude, botoa jaso dela jasota geratzen bada eta haren benetakotasuna bermatzen bada. Ulertuko da erabakia Fundazioaren helbidean eta balio osoz emandako azken botoa jasotzen den datan hartzen dela.

Bertaratuen –bertan daudenak nahiz ordezkariak– gehiengoaren akordioz hartuko dira erabakiak, eta, berdinketa egonez gero, Presidenteak kalitateko botoa izango du.

Dena den, Estatutuak aldatzeko eta Fundazioa eraldatu, bat egin, zatitu, azkendu eta likidatzeko, bertaratuen –bertan daudenak nahiz ordezkariak– bi herenen aldeko botoa behar izango da eta, betiere, Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa.

Patronatuko kideak izendatzeko bai kide-kopurua gehitzeko bai horiek ordeztzeko, bertaratuen –bertan daudenak nahiz ordezkariak– gehiengoaren botoa behar izango da, eta, betiere, Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kideen gehiengoaren aldeko botoa.

Patronatuaren bilera guztien akta egingo du Idazkariak, eta, horretan, bileraren tokia eta eguna ez ezik, bertaraturikoak, deialdia, gai-zerrenda, aztergaiak eta hartutako erabakien edukia ere zehaztuko dira.



III. KAPITULUA. BATZORDE BETEARAZLEA

24. Artikulua Batzorde Betearazlea

Batzorde Betearazlea, Patronatuaren ordezkaritza iraunkorreko organoa, gutxienez hiru (3) eta gehienez bost (5) kidek osatuko dute.

Hauek izango dira Batzordekideak:

- Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kide bat (1), Ikerbasque Fundazioak edo horren ordezkari den erakundeak izendatuko duena
- Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kide bat (1), Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak edo horren ordezkari den erakundeak izendatuko duena
- Patronatuko kide izendatu bat (1), pertsona fisikoa edo juridikoa, B+I+O Eusko Fundazioak (BIOEF) edo horren ordezkari den erakundeak izendatuko duena.

Batzorde Betearazleko kideak Patronatuak izendatuko ditu, bilerara bertaratzen diren Patronatuko kideen -zuzenean edo horien ordezkariak- gehiengoaren aldeko botoarekin.

25. Artikulua Batzorde Betearazleko presidentea

Patronatuko kideen gehiengoak, Batzorde Betearazleko Presidente izendatuko du organo horretan parte hartzeko izendatu diren pertsonen artean.

26. Artikulua Batzorde Betearazlearen eskumenak

Patronatuaren ordezkaritza organoa da Batzorde Betearazlea, eta Patronatuak erabakiko dituen gobernamenduaren berezko eskuduntzak eta ahalmenak - Fundazioaren ordezkatzeko eta administrazioari buruzkoak- bere gain hartu ahal izango ditu, Estatutuen 18. Artikuluan jasotakoak izan ezik.

[Handwritten signatures and initials]

III. TITULUA

FUNDAZIOAREN ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

I. KAPITULUA. ONDAREAREN OSAERA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINZA

27. Artikulua Fundazioaren ondarea

Fundazioaren ondarea honako hauek osatuko dute, une oro batetik, hasierako zuzkidura osatzen duten eta ekonomikoki balioets daitezkeen ondasunek eta eskubideek, eta, bestetik, eratu ondotik Fundazioak eskuratutakoek, zuzkidurari lotu ala ez.

28. Artikulua Ondare-zuzkidura

Fundazioaren hasierako ondare-zuzkidura, izaera horrekin eratze-eskritura publikoan jasotakoa da, eta fundatzaileek ekarritako ondasunek eta eskubideek osatuko dute.

Ondorengo ondare-zuzkidurak Patronatuak onetsi beharko ditu eta Urteko Kontuetan jasota geratu beharko dira.

Fundazioak sarrera-soberakinak sortze-zuzkidura handitzeko erabili ahal izango ditu.

29. Artikulua Xedatze eta kargatze-egintzak

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari jakinarazi beharko dizkio Fundazioak beraren ondarea osatzen duten ondasun edo eskubideen kostu bidezko edo doako xedatze-egintzak, baita kargatze-egintzak ere, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean adierazi direnak.

Patronatuak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio Babesletzari. Adierazpen horretan zehaztuko da xedatzeko edo kargatzeko erabakia behar bezala hartu dela eta horretarako arrazoiak eta beharrak zein diren, orobat eragiketarak Fundazioari ez diola kalterik eragiten eta haren bideragarritasun ekonomikoa ere ez duela arriskuan jartzen.

Xedatze edo kargatze-egintzen xede diren ondasun edo eskubideek merkatuan duten balioa Fundazioaren aktiboaren % 60 baino handiagoa bada, azterlan ekonomikoa bat erantsi beharko dio Patronatuak erantzukizunpeko adierazpenari, profesional independente batek egina. Adierazpenean azaldutakoa egia dela ziurtatu beharko du azterlanak, eta Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa bermatu, eta halaber irizpide ekonomiko eta finantzarioekin eta merkatukoekin bat datorrela eragiketara.

Artikulu honetan adierazitako xedatze edo kargatze-egintzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jasoko dira, hargatik eragotzi gabe beste erregistro batean ere erregistratzea hala dagokionean Gainerako xedatze edo kargatze-egintzak Babesletzari urtero aurkeztu beharreko memorian agertuko dira.



30 Artikulua. Fundazioaren ondarearen zaintza

- 1 Fundazioaren ondarea zaindu eta babesteko, arau hauek bete behar dira:
 - a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun-eskubideek, Fundazioaren izenean egon behar dute eta Inbentarioan jasota egon, eta, hala badagokio, dagozkien erregistroetan erregistratu behar dira
 - b) Ondasun higiezinak edota eskubide errealak Fundazioaren izenean erregistratu behar dira Jabetza Erregistroan. Erregistratu daitezkeen gainerako ondasunak, dagozkien erregistroetan erregistratuko dira.
 - c) Baloreak eta dirua, jabetza-tituluak, gordailu-ordezkapiriak eta jabaria, edukitza, erabilera, gozamina edo Fundazioaren titulartasuneko beste edozein eskubide egiaztatzen duten agiriak Patronatuak erabakitzen duen erakundean gordailatu behar dira Fundazioaren izenean.
 - d) Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak erabakitzen duen eran zaindu behar dira.
- 2 Ondasun eskubide horiek guztiak Inbentario Liburuan zehaztuko dira. Liburu hori Patronatuko Idazkariaren kargura egongo da eta hark ikuskatuta, bertan zehaztuko dira ondasun-eskubideak identifikatu eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak.

II. KAPITULUA. EKONOMIA ETA KONTABILITATE ARAUBIDLA

31. Artikulua. Ekitaldi ekonomikoa eta Kudeaketa Plana

Ekitaldi ekonomikoa urte naturala izango da, lehenengo ekitaldi ekonomikoa izan ezik zeren eta hori Fundazioaren jarduerak hasten direnean hasiko baita.

Fundazioak Kudeaketa Plan oneraketa egingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako. Kudeaketa Plan horretan helburuak, hurrengo ekitaldirako aurreikusitako jarduerak, kalkulaturako sarrera eta gastuen kontu-sailen aurreikuspena eta horren azalpen-memoria adieraziko dira. Kudeaketa Plan hori Babesleztari aurkeztuko zaio onesten den urteko azken hiruhilekoan.

32. Artikulua. Ekonomia eta kontabilitate betebeharrak

Ekitaldi bakoitzeko lehenengo hiruhilekoaren barruan, Presidenteak aurreko ekitaldiko Urteko Kontuak egin eta sinatuko ditu. Kontu horiek hauek barne hartuko dituzte: Egoera Balantzea, Emaiza Kontua, memoria eta Kontabilitate Planak irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat ezartzen dituen gainerako agiriak. Memoriak, besteak beste, alderdi hauek barne hartuko ditu: erantzukizunpeko adierazpenak eta horien xede diren egintza edo kontratuen perfektioari buruzko informazioa.

Ekitaldi bakoitzeko lehenengo seiuhilekoaren barruan, Presidenteak Patronatuari igorriko dizkio aurreko ekitaldiko Urteko Kontuak, onetsi ditzen.

Urteko Kontuak onetsi eta hurrengo 30 egutegi-eguneko epearen barruan, Fundazioaren Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidaliko ditu Urteko Kontuak –behar bezala sinatuta– gordailutzeko eta horiek irabazi-asmorik gabeko erakundeen kontabilitate-araudian aurreikusitako betekizunak bete beharko dituzte. Halaber, Patronatuak auditoretza-txostena aurkeztu beharko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean adierazitako ustezkoetan.

33. Artikulua. Fundazioaren baliabideen erabilera

Fundazioaren helburuetarako, Fundazioaren Emaiza-kontuko diru-sarreraren % 70 erabili beharko da gutxienez. Emaiza-kontua kalkulaturako da kontzeptu guztiak hartuta, behin kendu ondoren diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak, Fundazioaren helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik. Betebehar hori betetzeko epeari dagokionez, emaitzak eta diru-sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieraren eta ekitaldi hori itxi ondorengo hiru urteen artekoa izango da hura.

Administrazio gastutzat joko dira Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak, bai eta Patronatuko kideek euren karguak betetzeagatik egindakoak, baldin eta lege honetan ezarritakoaren arabera, horien gainean errenbultso-eskubiderik badute.



34. Artikulua - Ekonomia-, enpresa- eta merkataritza-jardueren finantzazioa eta garapena

Fundazioa, bere helburuak aurrera eramateko, finantzatuko da haren ondaretik etorritako etekinekin eta edozein motatako baliabide publiko edo pribatutik etorritakoekin.

Ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jarduerak egin ahal izango ditu Fundazioak, zuzenean nahiz beste erakunde batzuen bitartez, halako jarduerak Fundazioaren helburuekin lotuta badaude edota jarduera horien osagarri edo lagungarri badira, eta betiere lehiaren defentsarako arauak men eginez.

Gainera, beste erakunde batzuetan partaide izanda ere esku hartu ahal izango du beste edozein ekonomia-jardueratan, sozietate-zorren gainean erantzukizun pertsonalik ez dagoen kasuetan.

IV. TITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA ETA FUNDAZIOA ERALDATU, BAT EGIN ZATITU, AZKENDU ETA LIKIDATZEA

35. Artikulua – Estatutuak aldatzea eta Fundazioa eraldatzea

1. Fundazioaren Patronatuak Estatutu hauek aldatzea erabaki dezake, baldin eta Fundazioaren interesari komeni bazaio. Fundazioaren helburua errespetatzen bada eta fundatzaileek berriaz debekatzen ez badute.

Estatutuak aldatzeko erabakia, bertaratuen –bertan daudenak nahiz ordezkariak– bi herenen aldeko botoarekin eta arrazoiak emanda hartuko da, eta, betiere, Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

Hala ere, Estatutuak aldatzen badira fundatzaileek ezarritako helburuak aldatzeko edo ezabatzeko, fundatzaileen onespena lortu beharko da ahal den kasuetan, baita Babesletzaren berriazko onespena ere, aldaketa erregistroan erregistratu aurretik.

Estatutuak aldatzeko erabakia eskritura publikoan formalizatu beharko da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan erregistratu, erabakia hartzen denetik sei hilabeteko epean. Inskripzioak izaera eratzailea izango du, eta atzeraeraginezko ondorioak izango ditu erabakia formalki hartu zen datara arte.

2. Fundazioa beste pertsona juridiko mota bat bihurtzeko, baldin eta, irabazi-asmorik ez badu ere, Fundazioaren hasierako helburuak betetzen baditu, jardueraren eremua Euskal Autonomia Erkidegoa bada eta Fundazioaren ondare osoa organo publiko baten babespean badu.

Fundazioa eraldatzeko erabakia Fundazioaren Patronatuak onetsi beharko du, eta zein pertsona juridiko motatan bilakatuko den erabakiko du eta Estatuetan egin beharreko aldaketak adierazi.

Fundazioa eraldatzeko erabakia, bertaratuen –bertan daudenak nahiz ordezkariak– bi herenen aldeko botoarekin eta arrazoiak emanda hartuko da, eta, betiere, Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

Fundazioa eraldatzeak ez dakar berekin Fundazioa azkentzea, ezta likidatzeko prozesua hastea ere, eta nortasun juridikoa izaten jarraituko du. Fundazioaren bajea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan erregistratuko da, dagokion Erregistroari jakinarazita.

36. Artikulua – Bat egitea eta zatitzea

1. Fundazioa beste batzuekin bat egitea erabaki dezake Patronatuak, Fundazioaren helburua errespetatzen bada.

Bat egiteko erabakia, bertaratuen –bertan daudenak nahiz ordezkariak– bi herenen aldeko botoarekin eta arrazoiak emanda hartuko da, eta, betiere, Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin. Bat egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan erregistratuko beharko da.

2. Fundazio baten zati bat bereizi ahal izango da edo Fundazioa zatitu, beste fundazio bat edo batzuk sortzeko, edo aurretik sortuta dagoen beste fundazio bati edo batzuei eskualdatzeko, ondarea bananduta, baldin eta fundatzaileen horren



kontrako borondaterik jasota ez badago, bereizitako fundazioaren helburuak hobeto beteko direla justifikatzen bada eta fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jartzen ez bada Fundazioa bereizteko edo hura zatitzeko erabakia, bertaratuen -bertan daudenak nahiz ordezkariak- bi herenen aldeko botoarekin eta arrazoiak emanda hartuko da, eta, betiere, Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

Fundazio bat zatitu eta zatitutakoa aurretik sortuta dagoen beste fundazio bati edo batzuei eskualdatzeko, beharrezkoa izango da kasuan kasuko fundazioen patronatuen erabaki arrazoitua, eskritura publikoa egilestea, Babesletzak onestea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan erregistratzea.

37. Artikulua - Fundazioa azkentzea

Fundazioa azkenduko da

- 1 Kode Zibilaren 39. Artikuluan, legerian edo Estatutuetan jasotako kausaren bat gertatzen denean.
- 2 Beste batekin bat egiteak edo zatitzeak ondorio hori dakarrenean.
- 3 Eratu zenean finkatutako helburua erabat betetzen denean.
- 4 Fundazioaren helburua betetzea ezinezkoa denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean estatutuen aldaketari eta fundazioen bat-egiteari eta zatiketari buruz xedatutakoa gorabehera.
- 5 Legeek aurreikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean.

38. Artikulua - Fundazioa azkentzeko modua

Aurreko artikuluko 1., 2., 3. eta 4. idatzi-zatietan adierazitakoa gertatuz gero, Fundazioa azkentzea Patronatuak erabaki beharko du. Arrazoiak emanda bertaratuen -bertan daudenak nahiz ordezkariak- bi herenen aldeko botoarekin eta arrazoiak emanda hartuko da, eta, betiere, Fundatzaile Izendatutako Patronatuko kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin, eta Babesletzak berretsi beharko du.

Aurreko artikuluko 3. idatzi-zatian adierazitakoa gertatuz gero, ebazpen judizial arrazoitua eskatuko da.

Patronatuaren erabakirik ez badago edota haren erabakia Babesletzak berresten ez badu, ebazpen judizial arrazoitua beharko da Fundazioa azkentzeko. Patronatuak edota Babesletzak eskatuta, kasuen arabera.

Az kentzeko erabakia edo, hala badagokio, ebazpen judiziala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan erregistratuko dira.

39. Artikulua. Likidazioa

Fundazioa azkentzeak «haren jatorria bat egite edo zatiketa prozeduraren bat den kasuetan izan ezik», edo Fundazioa azkentzeko arrazoien betetzeak, likidazio-prozesua irekitzea ekarriko du. Prozesu hori Patronatuak edo, Babesletzaren kontrolpean, gobernu-organok horrek izendatutako likidazio-batzorde batek eramango du aurrera, salbu eta, kasua hori bada, ebazpen judizial arrazoitu batek besterik ezartzen badu. Fundazioak bere nortasun juridikoa izaten jarraituko du prozesua amaitu arte, eta, **epealdi horretan, «likidazioan» dagoen Fundazio gisa identifikatu behar da**.

Fundazioaren likidazioa egin eta gero geratu diren ondasun eta eskubideak, erakunde Fundatzaileek eratze eskrituran aurreikusi zuten hartara bideratuko dira, baina betiere Patronatuak erabakiko dituen erakunde publikoetara edo irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetara. Erakunde horiek interes orokorreko helburuak, Fundazioaren helburuen antzekoak, aurrera eramango dituzte, eta erakunde horien artean, Euskal Herriko Unibertsitatea lehenesten da. Erakunde horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan edo hori ordeztuko duen arautegian jasotako betekizunak bete beharko dituzte.

Patronatuak erabakia hartzeko, bertaratuen «bertan daudenak nahiz ordezkariak» bi herenen aldeko botoa behar izango da eta, betiere, Fundatzaile izendatutako Patronatuko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa.

Patronatuak egiten ez badu, Babesletzak Fundazio azkenduak zituen antzeko helburuak, interes orokorrekoak, dituzten irabazi-asmorik gabeko beste fundazio edo erakunde batzuei esleituko dizkie, baldin eta Bizkaiko Lurralde Historikoko irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan edo hori ordeztuko duen arautegian jasotako betekizunak betetzen badituzte, eta lehentasuna emango zaie beraien helbidea udalerrri berean dutenei, betiere, Bizkaiko Lurralde Historikoan dutenei.

40. Artikulua. Babesletza

Fundazio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren babespean, aholkupean eta kontrolpean dago, indarrean dauden Legeek ezarritako baldintzetan.

41. Artikulua. Fundazioen Erregistroa

Fundazioaren egintza edo negozio juridikoak, legeak hala agintzen badu, Legearen arabera eskuduna den Fundazioen Erregistroan erregistratuko dira.



VI. TITULUA

FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEN ARAUBIDE JURIDIKOA

42. Artikulua. Fundaziora atxikitako laguntzaileak

Fundazioaren eratze-eskritura egiletsi ondoren, Fundazioaren helburua lortzen lagun dezakeen jarduera edo ekarpena duten pertsona fisikoak edo juridikoak atxiki ahal izango dira Fundaziora. laguntzaile atxiki gisa

Asmo horrekin Fundaziora atxikitzeko eskabideak, Patronatuko kideen gehiengo osoak onetsi beharko ditu. Halaber, laguntzaile izan nahi dutenek jarri beharreko ekarpen ekonomikoa zehartuko du Patronatuak

43. Artikulua. Ohorezko laguntzaileak

Patronatuak ohorezko laguntzaile izenda ditzake Fundazioaren helburuak lortzen nabarmen lagundu duten edo laguntzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

ESTATUTOS SOCIALES

ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE FUNDAZIOA

TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1: Denominación y duración

El objeto de los presentes Estatutos es regular la **Fundación denominada ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE FUNDAZIOA**, constituida por la **Fundación Ikerbasque** y la **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea**.

ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE FUNDAZIOA es una organización **constituida sin ánimo de lucro** que, por voluntad de quienes la crean, tiene afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de los fines de interés general, que se describen en el artículo 3 de los presentes Estatutos.

La Fundación se constituye con carácter permanente y comenzará sus actividades el día del otorgamiento de la escritura fundacional, pudiendo realizar a partir de dicho momento todos los actos necesarios para su inscripción, así como aquellos que resulten indispensables para la conservación de su patrimonio y los que no admitan demora sin perjuicio para la Fundación, actos todos ellos que se entenderán automáticamente asumidos por la Fundación cuando se proceda efectivamente a su inscripción, momento en que adquirirá la personalidad jurídica.

Artículo 2: Régimen jurídico, personalidad y capacidad jurídica

La Fundación tiene personalidad jurídica propia e independiente desde la inscripción de la Escritura de Constitución en el Registro de Fundaciones y dispone de plena capacidad jurídica y de obrar, sin otras limitaciones que las establecidas en la manifestación de voluntad de quienes la fundan en el acto fundacional, en los presentes Estatutos y, en todo caso, en las disposiciones legales que le sean de aplicación, en particular la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco y las disposiciones reglamentarias de desarrollo.

En consecuencia, y sin perjuicio de las pertinentes comunicaciones o autorizaciones al Protectorado, la Fundación podrá realizar todos aquellos actos y actividades necesarias tendentes al cumplimiento del fin fundacional y tendrá plena capacidad de obrar conforme a lo previsto en el artículo 38 del Código Civil. De forma enunciativa, la Fundación podrá:

1. Desarrollar actividades económicas, de todo tipo, para realizar sus fines o allegar recursos con ese objeto.
2. Adquirir y enajenar toda clase de bienes y derechos, por cualquier título, y celebrar todo tipo de actos, negocios y contratos.
3. Ejercitar toda clase de acciones, conforme a sus Estatutos y a las leyes.



Artículo 3: Fines fundacionales

ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE FUNDAZIOA tiene por fin constituir un centro de investigación orientada y estratégica de excelencia a nivel internacional en neurociencias en cooperación con la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea y los principales centros de investigación en este ámbito a nivel nacional e internacional, que sea acorde con los intereses de la sociedad, contribuyendo a su desarrollo y bienestar social, y que propicie el avance científico internacional.

Dentro de estos amplios objetivos, tendrá como actividades concretas las siguientes:

1. Desarrollar un centro de investigación de primer nivel encaminado a la investigación básica, de formación de postgrado y de transferencia de conocimiento en neurociencias.
2. Fomentar la igualdad de oportunidades para todas las personas.
3. Fomentar y desarrollar investigación fundamental orientada y estratégica en neurociencias y que serán especificadas en el Programa de Investigación de la Fundación vigente en cada momento. En particular, la Fundación promoverá la investigación en el campo de la interacción glía-neurona y en sus alteraciones durante el proceso de envejecimiento.
4. Favorecer la producción, promoción y divulgación del conocimiento científico y técnico. La Fundación extenderá especialmente sus esfuerzos a la investigación asociada a los procesos patológicos relacionados con las áreas anteriores, como la enfermedad de Alzheimer, la esclerosis múltiple, la isquemia cerebral y otros procesos neurodegenerativos tales como entre otros, la enfermedad de Parkinson y la esclerosis lateral amiotrófica.
